

# Los presos Lierni Armendariz y Oroitz Salegi separados a pesar de tener un hijo de cuatro meses

ETXERAT :: 21/12/2012

[Cast/Eusk] Hoy en día es la única pareja a la que teniendo un hijo en común, no se le permite estar en la misma prisión

## Castellano

Los presos políticos vascos Lierni Armendariz y Oroitz Salegi, obligados a permanecer en cárceles diferentes, a pesar de tener un hijo de cuatro meses. Lierni Armendariz, natural de Beasain, se encuentra en la prisión de Aranjuez con su hijo Aiur y Oroitz Salegi, natural de Donostia, la de Mansilla, de León.

Antes de ser padres la pareja se encontraba en la prisión Mansilla. Dos meses antes de nacer su hijo, trasladaron a Lierni Armendariz a Aranjuez, donde existe un módulo para madres. Desde entonces, tanto ambos presos como sus familiares han solicitado el traslado de Oroitz a la prisión de Aranjuez para que puedan mantener las comunicaciones habituales. Oroitz Salegi mediante instancia enviada a Instituciones Penitenciarias (IIPP), pidió su traslado junto a su pareja y su hijo. Solicitud que fue rechazada por IIPP argumentando que el hecho de que los dos estén juntos puede ser peligroso. Ante esta situación, Oroitz ha interpuesto una queja ante el juez, y está esperando su respuesta.

Hoy en día es la única pareja a la que teniendo un hijo en común, no se le permite estar en la misma prisión. Es una situación especialmente dura que se prolonga ya durante seis meses y que está impidiendo al padre conocer a su hijo. La mediad, además de injusta es arbitraria ya que durante el tiempo que estuvieron en la misma prisión y accedieron a las comunicaciones habituales en estos casos, no se dio ningún motivo que pueda fundamentar lo que ahora argumentan. El resultado es la vulneración del derecho a la paternidad y a crear una familia, derecho que ningún preso ni presa tiene suspendido. Y lo que es aun peor, espero están también vulnerando los derechos de un niño al negarle la posibilidad de conocer a su padre, de tener contacto con él y de crear el vínculo familiar que le corresponde.

Desgraciadamente no es la única pareja que se encuentra en cárceles separadas y alejadas (aún siendo, como hemos dicho, la única que teniendo un hijo se encuentra en esta situación). Otros 10 presos y presas políticos vascos llevan tiempo, en ocasiones años, pidiendo el traslado a una misma prisión. IIPP aduce, en el intento de justificar la negativa, que no están en la misma comunidad, que se debe a razones de seguridad o que no resulta adecuado para su tratamiento... Es el caso de:

Marta Igarriz y Karmelo Lauzirika (Castello I y Puerto I): están solicitando traslado a una misma cárcel desde el 2007, pero, les deniegan sus solicitudes una y otra vez, tanto desde IIPP como desde el Juzgado Central de Vigilancia Penitenciaria. La última resolución sobre su caso lo recibieron en julio de 2012, y en él les informaron de que la primera sección de la

Audiencia Nacional denegaba su solicitud.

Bea Etxebarria e Iñigo Zapirain (Córdoba y Jaen II): IIPP denegó su solicitud. El Juzgado Central de Vigilancia Penitenciaria también se lo denegaron e hizo lo mismo la primera sección de la Audiencia Nacional.

Olatz Lasagabaster y Patxi Uranga (Brieva eta Foncalent): El Juzgado de Vigilancia Penitenciaria ha denegado su solicitud.

Itxaso Guemes e Iban Apaolaza (Foncalent y Granada): Han interpuesto dos quejas, y en estos momentos el caso está en manos del fiscal.

Y como ya se ha mencionado, el caso de Lierni Armendariz y Oroitz Salegi y su hijo de cuatro meses.

Esta situación es muy dura tanto para la pareja que no puede estar junta, como para los familiares y allegados de estas personas. A las dureza de los viajes que cada semana se ven obligados a realizar y al desgaste económico resultante, se suma el hecho de tener que desplazarse a dos cárceles diferentes y muy alejadas una de otra, duplicando esfuerzos, riesgos y gastos.

## Euskera

Lierni Armendariz eta Oroitz Salegi euskal preso politikoak bananduta aurkitzen dira, lau hilabeteko haurra izan arren: Lierni Armendariz beasaindarra, Aranjuez espoxean dago Aiur haurrarekin. Oroitz Salegi donostiarra, berriz, Leongo Mansilla espoxean dago.

Guraso izan aurretik, bikotea Mansilla espoxean zegoen. Baino, haurra izan baino bi hilabete lehenago Lierni Armendariz Aranjuezera mugitu zuten, bertako amen moduluan egon zedin. Ordutik, bi presoak eta euren senideak hirurak elkartzeko saiakerak egin dituzte. Oroitz Salegik Instituciones Penitenciarias-en (IIPP-en) eskaera bat egin zuen, bera Aranjuez espoxera eraman zezaten, bere bikotea eta haurra dauden espoxera hain zuzen ere. Baino, IIPP-ek bere eskaera atzera bota du. Biak elkarrekin egotea arriskutsua izan daitekeela argudiatuz. Hau ikusita Oroitzek epailearengana jo du kexa baten bidez, eta egun erantzunaren zain aurkitzen da. Ondorioz, Oroitzek ez du bere semea ezagutzen oraindik.

Egun haurra izanda, bikotea bi espoxetan bananduta duten kasu bakarra da honakoa. Egoera hau bereziki gogorra da bikotearrentzat, zein euren inguruko senide eta lagunentzat. Aitak eta semeak ezin izan dute elkar ezagutu, azken sei hilabeteetan ezin izan baitute hirurek elkarrekin egon. Egoera erabat bidegabea da, segurtasun arrazoiak argudiatuz, bikote izanik elkarrekin egoteko eskubidea urratzen ari baitzaie Armendariz eta Salegiri, aitatasun zein famili bat osatzeko eskubideak ere urratuak izaten ari dira; eta are larriagotzat jo dezakeguna, lau hilabeteetako semearen eskubideak jaiotzetik ukatuak zaizkio, aita bat eta familia bat izateko eta beraz famili loturak edukitzeko eskubideak ukatuz. Hau guztia gutxi balitz, bere semea ezagutzera joateko aukerarik ere ez diote eman Oroitzi.

Hala ere, zoritzarrez ez da bananduta aurkitzen den bikote bakarra (bai, ordea, haurra izan eta biak espetxeen daudela bananduta mantentzen duten bakarra). Euskal preso politikoen bost bikote daude egoera honetan, hauetako batzuk urteak daramatzatelarik elkartu ditzatela eskatzen. Orokorrean, eskaera haeui ezezkoa emateko argudioak beti izaten dira berdinak: ez daudela komunitate berdinean, segurtasun arrazoiengatik edo euren tratamendurako txarra izan daitekeelako... Hau da bikote bakoitzaren egoera:

Marta Igarriz eta Karmelo Lauzirika (Castello I eta Puerto I): 2007tik daramate elkarteko eskatzen, baina, behin eta berriz ukatzen dute euren eskaera. Lehenik IIPP-tik, eta ondoren Zaintza Epaitegi Zentraletik. Euren eskaeraren inguruko azken ebazpena 2012ko uztailean jaso zuten, eta bertan adierazi zitzaien Entzutegi Nazionaleko 1. sekzioak berriro ukatu ziela elkarrekin egoteko eskubide hau.

Bea Etxebarria eta Iñigo Zapirain (Cordoba eta Jaen II): IIPP-tik ukatu egin zuten euren eskaera. Zaintza Epaitegitik ere atzera bota zuen eta gauza bera egin zuen Entzutegi Nazionaleko 1. sekzioak (apelazioan).

Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga (Brieva eta Foncalent): Zaintza Epaitegiak ukatu du euren eskaera.

Itxaso Guemes eta Iban Apaolaza (Foncalent eta Granada): Bi kexa sartu dituzte jada, eta une honetan euren kasua fiskalaren esku dago.

Lierni Armendariz eta Oroitz Salegi (Aranjuez eta Mansilla): Lau hilabeteko haurra dute elkarrekin, baina hala ere, IIPP-k euren eskaera ukatu zuen. Orain epailearengana jo dute kexa baten bidez, eta erantzunaren zain aurkitzen dira.

Guzti hau oso gogorra da banaketa bizi duten bikoteentzat, eta baita senide eta lagunontzat ere. Izan ere, senide eta lagunok sakabanaketaren ondorio gogorrak astebururo jasateaz gain, bikote hauen senide eta lagunen egoera are muturrekoagoa bilakatzen da, familia sakabanatuta izateak bidaia eta honen ondorioak biderkatzea ekartzen baitu.

---

<https://eh.lahaine.org/los-presos-lierni-armendariz-y-orozt-sa>